

BIZITEGI ERAIKINA
C MAILA**GALTZADA NAGUSIA 3**

Egilea eta data: Florencio Mocoroa, 1935

Deskribapena

Etexadi erremate gisa kantoi bikoitzeko eraikina; behe oina eta sei goi oin ditu, azkena atzeraemangunean. Etexak bost atari ditu, eta atari bakoitzean oin bakoitzeko bi etxebizitza. Kasu gehienetan etxebizitza horiek alderik aldekoak dira Galtzada Nagusira ematen duen atarian izan ezik. Honek hondo txikiagoa du. Eraikitako azalera orubearen zati handi bat hartzen du, aprobeixamendu handiaz, etexadi patio txikiaren kalterako. Patio nagusi honetaz gain, banaketen barrualdean kokaturiko erdiko geletarako beste zortzi patio txiki daude. Etxe honen ezaugarri adierazgarria da, perimetro osoan agertzen den etengabeko lerro horizontal edo inposten multzoa. Konposizio gai bera modu jarraituan agertzen da hiru fatxadetan. Izan ere, balkoien eta irtendako gelen artean dauden erritmo desberdintasunak irudi bakarrean ezkutatzeko baliabidea da.

Babes erregimena

1.- Babes erregimen orokorra:

Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.

2.- Berariazko babes erregimena:

A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadaren elementuak edo zatiak: arrotzeria.

B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: ez.

C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: Zurriola 32 eta 34rekin, eta Kolon pasealekua 31 eta 33rekin batera osatzen duen esku hartze unitatean sartzearekin lotutakoak.

D.- Nahitaezko lehengoratzak:

* Behe oinean inolako irizpiderik gabe erantsitako estaldurak ezabatuko dira.

* Hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari lotutako gainerakoak, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.